

KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA: KASU PRAKTIKO BATEN ANALISIA

Lehiakortasuna hobetzeko erreferentzia izan daitezkeen jardunbide egokien eta kudeaketa-tresnak ezagutzeko. Erakundearen kudeaketaren funtsezko alderdiak ezagutzeko: estrategia, bezeroak, pertsonak, gizartea, berrikuntza eta emaitzak. EUSKALITen kanpo-ebaluazioaren prozesua ezagutzeko.

Laburpena

Deialdiaren xehetasunak	Datak: 2026an berriro programatuko dugu. In company ere antolatu daiteke Modalitatea: Birtuala Egoitza: Online Ikastaroaren erreferentzia: 25KUDEAKETAONLINE-1
Ordutegia	9:00-13:00
Irakaslea	Aurkene Redondo (Enbor Kontsultoreak)
Entitate laguntzaileentzako prezioa eta Kudeabide enpresentzako prezioa	145 € + BEZ
Entitate ez-laguntzaileentzako prezioa eta Kudeabide ez den enpresentzako prezioa	375 € + BEZ

Helburuak

- Erakunde baten kudeaketa-sisteman, erabiltzen dituen tresnetan, ikuspegietan, praktikan, adierazleetan... sakontzea.
- Kasu praktiko baten ebaluazioa egitea, Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren arabera (KAE): erakunde baten indarguneak eta hobetu beharreko arloak identifikatzea.
- Kudeaketaren aurrerapen-maila baloratzeko taulak erabiltzen ikastea, erakunde baten kudeaketaren garapen-maila ezagutzeko eta sistematikari, planteamenduen berrikuspenari, ikaskuntzari, ezarritako helburuei eta abarri buruz hausnartzeko.
- KAEa erabiltzen ikastea erakundearen autoebaluazioa egiteko, kontraste-talde batean parte hartzeko eta beste erakunde baten ebaluazioa egiteko EUSKALITeko Ebaluazio Klubeko kide gisa.

Gai zerrenda

- Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren edukia.
- Kudeaketa Aurreraturako lan-tresnak eta praktika onak.
- Kasu praktiko baten ebaluazioa.
- Ebaluazio Kluba eta EUSKALITen Kanpo Ebaluazioa.

Baldintzak eta oharrak

- Ikastaro honetan ebaluazio baten simulazioa egitea da ezarpen proiektua.
- Ezinbestekoa da lehen jardunaldi osoan parte hartzea, ariketak egiteko oinarri teorikoak eta lan dinamika azaltzen baitira.
- Norberak 15-20 ordu inguru eman beharko ditu eta ebaluazio simulazio batean parte hartuko du, ikastaroan parte hartzen duten gainerako pertsonekin taldean lan eginez.
- Ikastaro hau probetxuz egiten dutenak eta hala nahi dutenak Ebaluazio Klubean sartuko dira eta kanpo-ebaluazio taldeetan parte hartu ahal izango dute.

Gara daitezkeen proiektu-motak

- Ikastaroak irauten duen bitartean, ikasle bakoitzak erakunde baten kudeaketaren ebaluazioa egin behar izango du, irakasleak emandako irizpideei jarraituz eta azaltzen duen metodoari jarraituz. Horrek esan nahi du irakurri egin behar direla Kudeaketa Aurreratuaren Eredua eta erakunde batek kanpo ebaluazio erreal batera aurkezteko erabili duen kudeaketa-gida. Horretarako, kanpo ebaluaziorako web tresna bat erabiliko da, kanpo ebaluazio errealean erabiltzen denaren antzekoa. Ikasgelan taldearen kontsentsu lana egingo da eta partekatuko da.

Planifikazioa eta flujograma

Proiektuaren iraupena: 2 hile



Izen-ematea

✓	ERABAKI DUZU? Gure webgunetik (www.euskalit.net) burutu dezakezu izen-ematea edo, errazago, esteka honetatik: https://www.euskalit.net/knownn/25KUDEAKETAONLINE
?	INFORMAZIO OSAGARRIA BEHAR DUZU? Jarri gurekin harremanetan 94 420 98 55 telefono-zenbakian edo bidali mezu elektronikoa bat namarika@euskalit.net helbidera.
👁️	GAIZKI DATOZ PROGRAMATU DITUGUN DATAK? Jarri gurekin harremanetan hemen sakatzuz , eta aukera berriak baloratu ahal izango ditugu.
💡	GARRANTZITSUA Gure ikastaroetan izena ematean, matrikulatutako pertsona bakoitzak zenbait baldintza onartzen ditu. Hemen sakatzuz irakurtzea gomendatzen dizugu .

Beste modalitate batzuk

📌	IN COMPANY Ikastaro hau gaztelaniaz edo euskaraz ere eman daiteke, behar zehatzetara egokitutako datak, ordutegiak edo formatuak pertsonalizatu nahi dituzten erakundeetan. Jarri gurekin harremanetan 94 420 98 55 telefono-zenbakian edo bidali mezu elektronikoa bat tgarcia@euskalit.net helbidera.
---	---